

Altxor uhartea

Orain hil da Joxe Azurmendi, baina ibilia da lehenago ere hortxe-hortxe. Anaiak eta biok, adibidez, ia hil genuen duela berrogeiren bat urte. Intentzio txarrik gabe, pare bat aldiz bai. Donostian, guretik gertu bizi zen, eta maiz egiten zigun bisita. Eta interfonotik gora etortzekoa zela entzutean, zain jartzen gintzaizkion igogailuaren ate ondoan kukututa. Eta –zenbat pozten gintuen haren bisitak– igogailutik hanka punta ateratzearekin batera ematen genion sustoarekin kasik hankaz gora botatzen genuen. Esango nuke ez ziola guri adinako graziaz egiten; baten bat bihotzekoak jota akabatuko genuela horrela, esaten zigun. Baina errietaryk ez. Horren ordeztu, elkar ongi nola agurtu erakutsi zigun: hasi behar da *Egun on; zer moduz zaude?* esanez; orduan, besteak erantzun behar du *Ni ondo; eta zu?* Eta dialogoa borobiltzen da *Ni ere ondo, eskerrik asko!* esanez.

Inportanteak ziren «eta zu?» eta «eskerrik asko!» parteak. Harrezkero, igogailutik irteteen parez pare izaten gintuen zain, ikasitakoa praktikatzeko desiratzen: *Egun on; zer moduz zaude? Ni ondo; eta zu? Ni ere ondo, eskerrik asko!*

«Oso ondo!» esaten zigun gero, eta gu harro oso ondo egiten genuelako.

Gustatzen zitzaion jendarteko maneren txukuntasuna. Eta guri gustatzen zitzaigun mahaia txukun jartzen erakutsi ziezagun: sardeska plateraren ezker aldean; edalontzia plater parean, baina eskuin alderantz, eta abar. Mahaiaren bueltan hizketan hasten ginenean, berriz, etxeko Larousse entziklopedian kontsulta egitera bidaltzen gintuen. *Finlandia, cimarrón, pistilo*. Inportantea zen zalantzak entziklopedian begiratzen ohitzea.

Frantziskotarren pisua uztean, Berastegiko Zapatategin egin zuen denboraldi bat. Zapatategi bitan zatitua dago. Alde batean Juli Iztueta eta

Jon Aiertza bizi dira; eta bestera iztueta-azurmenditarrok joaten gara, ahal dugunean. Izeba Juli eta osaba Jonen suhietako bat da Angel. Eta joan den asteburuan, hortentsiekin ari zela, zurekin akordatzen zen, orduko hartan, kotxez hurbildu ahala, nola ibili zen antz hartu ezinik sagarrondoan inguruan zebilen figura arraro hari. *Y luego resulta que es Joxe*, Joxe zinela, alegia, udan gabardina jarrita eta aurpegia zapiz eta betaurrekoz estalita, tuareg baten eran, sagarrondoak sulfatatzen. Inor ez da ikasita jaiotzen. «Hainbeste ideia dauzkan jende hau...», esaten du Angelek, «*post-it*-ez beteta izaten zituen bazter guztiak; hainbeste ideia zeuzkan, ahaztu ez zekizkion. Hara, pikondoa Joxek landatua da».

1990a izango zen, Italiako mundiala zelako. Ez zen futbola ikusten esertzera, baina Kamerunen alde zegoen –ahulenaren alde egin behar delako beti–, eta Alemaniaren alde ere bai –debilidadea–, eta Argentinarekin zer egin dudatan, hainbeste Olarticoechea, Goycochea eta Burruchaga. Zapatategin ohea eta lan-mahaia gela berean zeuzkan, frantziskotarrenean bezala. Inoiz, etxeko lanak egiten izaten ninduen ondoan, musika klasiko hari-izpi bat irratian. Uda hartan erdi irekitako karpeta bat aurkitu nuen Zapatategiko salan, makinaz jotako orrialdez betea. Karpetatik atera eta euskaldunei buruz erromatarrek idatzitako pasarte harrigarriak-eta irakurtzen hasi nintzen. Azaldu zenean, paper horiek zer ziren galdetu nion, eta liburu baterako zirela esan zidan.

Ah.

Zenbait urte geroago, zerbait gertatu zen Xalotasunarekin eta Inozentziarekin. Ezer larririk ez; bakarrik, bakoitza gabiltzan bideak eramaten gaituela.

Hori poza Aste Santu honetan Italiatik bidali genizun familia-postala jaso zenuela jakitean. Beldur nintzen. Helbideetan *Paese Basco* eta soilik *Paese Basco* jartzen tematzen gara, eta gero beti halako zalantza bat, postariak zeri buruz ari garen jakingo ote duten. Poza, eta, halere, begietatik masailetan behera ateratzen ari zaizkidan zera hauek, osaba. Ume haren *Long John Silver*. Zer moduz? Ondo. Eta zu? Ni ere ondo. Eskerrik asko.